


SUTONDOAREN EPELEAN ENRIQUE CHURRUCA "ERLEI"
ERREPORTAIA ASTE SANTUA LUIS ABADIA ETA EMILITAREN IKUSPEGITIK

Erle pilpilean

Soraluzeko Hamabostekaria 108. alea 2005eko apirilaren 1



**ASTESANTUETAKO
BESTE
PLANA**



Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefonoa: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

PLACENCIA

KONTSUMO KOOPERATIBA

*Era guztietako jaki
eta erropak Soraluzen!
Esku-eskura!*

Kalebarren 4
Telef.: 943-751345





Pazkuan historia

JOSE LASKURAIN

Aintzinako jentiagan gehixen eragiten zeben gertaerak naturako urteko zikluak ziran. Eron bizimodua ehizan, fruitu bilketan edo eta nekazaritzan oinarritzen zanez, urtaruen aldaketek garrantzi handia zeken. Eta horregaitik munduko bazter guztietan ospatzen zeben urteko sasoi hau, udaberriaren hasiera. Neguko janari gabeziak bazter batera laga eta oparotasun txanda zetorren.

Judutarrentzat, herri nomada izanda, desertuko lurren loratziak eta bildotsen jaiotzak larre berriaren bila mobidu bihar zirala esan nahi zeban, eta udaberriko lenengo hilbetian jatordu betekin ospatzen zeben, bildotsa, legami bariko ogixa eta bedar mikitak. "Pesah" deitzen zotsen, aldaketa. Hitz horretatik dator gure Pazkua.

Judutarrak Egiptoko esklabutzatik askatuak izatia Pazkuan gertatu zan, eta horregaitik indar haundixau hartu zeban ospakizun honek.

Jesusen garaian judutarren jai nagusia zan. Baina batezbe Jesusen pasia, hau da, azken afaixa, atxilotzia, galdeketa, gurutziltzatua izatia eta piztuera. Jesusen heriotza eta piztuera kristau fedian oinarria danez, kristautasun jairik garrantzitsuen da Pazkua.

Egun nagusixa, hau da Pazko-Domekia edo Berpizkundeko Domekia, udaberriko ekinoziuan osteko hilbetian ondorengo lenengo domekia da. Gaur egunian

be Pazko egunez bildotsa jateko ohitturari eusten dotsau. Eta ezta jateko gauzekin lotutako ohitura bakarra. Munduko leku askotan arraultzia sasoi honetako beste sinbolo bat da, eta aspalditik gainera. Kristautasuna baino lenagotik gurtzen zan leku askotan, lurran berpizkundia irudikatzen zebalako. Negu luze eta gogorran ondoren, udaberriaren lurra biziberritu eitten da, arraultzatik txitia bezela.

Gure artian, amapuntuak bere besuetakuari arraultza bat erdixan daukan opil bat erregalatzen dotsa. Poliki-poliki galtzen doian arren, oindiokan badare gure herrixan ohitura hau mantentzen daben familixa batzuk. Leku batzutan arraultzak margotu eitten ditzuzte kolore biziz, eta beste batzutan txokolatzeko arraultzak eitten ditzuzte.

Gaur egunian, jai honek daukan esanahia ahazteko joera daukau. Askontzat opor egun batzutan bihurtu da, besterik ez, eta egun gutxi baldin badira be bidaiatzeko aprobetxau biharrekuak. Bestela pentsau geinken arren Pazkuan bidaiatzia aspaldi asmautako zeoze da. 1722ko Pazko-Domekan, Jacob Roggeveen itsasgizon herbeheretarra Ozeano Barian zihar bidaiatzen zebilen, ezagutzen zan lurlihor gertuetatik milaka itsas miliatara, inungo mapetan agertzen ez zan irla bat topau zebanian.

Baina hori beste kontu bat da.

Telegrapak

Kaixo irakurle. Stop. ohikua baino berandutuago baina hemen gatoz geu berriz aberastuta. Stop. zer moduz Aste Santuko oporrak?. Stop. parte hartu dozue prozesioño edo manifestaren baten?. Stop. izan da aukeria. Stop. batzuk euren bizkarra berotu dabe eta beste batzuei berotu egin dotse. Stop. gusto danetarako dago hemen. Stop. hauteskundiatarako ezik. Stop. hor gusto batzuk debekatuta dare. Stop. gero eta gehixago gainera. Stop. gero eta "pekatarari" gehixao dago. Stop. "pekatarixaren" lagunaren amamaren laguna bazara. Stop. "pekatarari" zara zeu be. Stop. eta beraz, ez daukazu eskubide zibilik. Stop. eta horri demokrazia deitzen jarraitu bihar ei jako!. Stop. buenooooo!. Stop. ia legebiltzarrerara aurkeztu diran plazentziatarak honi buelta emotia lortzen daben. Stop. ez da erreza izango baina. Stop. presuak be hor dihardue sufrimenduarekin amaitzeko sufritzen. Stop. inork erantzuten ez ditzuan bakerako adierazpenak egitten. Stop. en fin!. Stop. galdara y topin!. Stop. Korrikan izugarrizko jente piliak parte hartu zeban. Stop. garagardo Ufala dator Santa Ana kaletik. Stop. Sorak entrenatzaile barrixa dauka. Stop. Udalak, adineko ezinduen inguruko azterketa bat egingo dau. Stop. etxebizitza barrixak. Stop. Ohiartzungo Hizkuntz Eskubideen Egunerako autobusa... Stop. "danetik dago Jaunaren mahastietan!"



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.

Telefona 943 75 13 04

comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria eta Egoitz Unamuno.

Publizitatea: Ugaitz Catalan (943 75 13 04)

Logotipoa: Jon Gabilondo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **ekoizpena:** 1.920 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Azala: Silvio Vaz Caro

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta irizien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZeko
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Erreportaia

Asko ta asko kanpora joan dira Aste Santuko jai egunetan, bai kostaldera edo bai mendialdera. Beste batzuk herrian gertatu dira, lasai, abuztuko opor txikiak izango balira moduan; gutxi batzuk, berriz, eliz-ospakizunetan hartu dute parte.

Zorion agurrak



Andoni Calles
Apirilaren 7an
Zorionak Antoine,
zure urtebetetze-
an!! Txintxo-txintxo
izaten jarrai deza-
zula. Amaia eta
lagunen partez

Ainitze Aranzeta
Apirilaren 1an
Zorionak rubia!
Zelako ondo pasau
zendum zure egu-
nioan eh?Laztan
bat etxekuen eta
lagunen partez



IKASTAROAK

**Kultura, kirol eta hezkuntzako ardu-
raduna Antzuolako Udalean**
Antzuolako Udalean Kultura, Kirol eta
Hezkuntzako Arduradun-lanpostua
betetzeko eta lan-poltsa bat sortzeko
deialdia. Telefonoa: 943 766246

Iragarkiak

Pisu bat salgai SORALUZEN

Hiru logela, egongela, sukalde berria,
bainugela, ganbara, despensa eta bal-
koia. Dena kanpoaldera begira. Prezio
onean. Mug. 649052585

Pisu bat salgai SORALUZEN

Sukaldea eta komunak amueblatuta.
Garaje eta solairuartekoa eta txokoa
(144 m2). Mug. 615779920

**SORALUZeko Batzokiko taber-
na eta jatetxea** hartzeko arduraduna
behar da. Interesatuek deitu
943751278 telefonora

hildakoak

Felipa Ariznabarreta Larrañaga
Josefa Rodriguez Fernandez

Gutunak

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN
EGUNA

(Apirilaren 10ean Oiartzunen)

Euskal Herrian Euskaraz-ek biga-
rren urtez, Hizkuntz Eskubideen eguna
antolatu du. Aurten Oiartzunen dugu
hitzordua. Guztiok jakina da egun, gure
herrian euskaraz bizitzea ezinezkoa
dela. Izan ere dagozkigun hizkuntza es-
kubideak urraturik ditugu, salbuespenik
gabe, Euskal Herri osoan, eremuz ere-
mu eta administrazioz administrazio.

Euskal Herriaren euskalduntze
osoa lortzeko hizkuntza eskubideen ber-
mea erdiestea ezinbestekoa da. Ezinbes-
teko urratsa eta inflexio puntu oso ga-
rrantzitsua: haur guztiei euskara eskola
bidez ezagutaraziz; administrazio orot-
an euskaraz aritzea ziurtatuz; osasun-
etxe eukaldunak osatuz... Egitaraua ho-
nakoa izango da:

9:30 Autobusa Gila Zubitik

11:00 HIZKUNTZA ESKUBIDEEN
ALDEKO II. NAZIO BILKURA

13:00 MANIFESTAZIOA

13:30 EKITALDIA

14:30 HERRI BAZKARIA

16:00 HERRI KANTAK

17:00 Haurrentzat AINTZINAKO
JOLASAK

18:00 TAPIA ETA LETURIA

KONPROMISOEN SOKATIK TIRA!
OFIZIALTASUNA!

Soraluzeko Euskal Herrian
EuskarazESKERRAK
"TXURI URDINAK" ETA
KORRIKA BATZORDEARI

Juanjo Urrutiaren omenaldian parte
hartu genuen guztion partetik eskerrak
eman nahi dizkiegu Soraluzeko Txuri
Urdinak Zaletu Taldeari Plaza Barrixa
Omenaldia egiteko libre uztearren eta
Korrika Batzordeari jai eguna bertan be-
hera uztearren.

Mila esker, Juanjoren sendiaren, la-
gunen eta ezagunen mina errespetatze-
arren.

Juanjoren Omenaldiko
Antolakuntza Batzordea

OROITZA

Martxoaren 12an hil zen Montevideon 44 urte zituela
JUANJO URRUTIA PIA

*Zeure herritik eta sendiarengandik urrin bizi bihar izan dozu
Euskal Herrixaren askatasunaren alde egitiagatik.
Maite zaitugu eta beti maiteko zaitugu Juanjo!*

Heriotzaren ostean dolumina adierazi eta omenaldi eta elizki-
zunetan parte hartu duten guztiak eskertu nahi ditu sendiak.



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

ARRANO
tabernia

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK
etxera

Telefonoa 75 24 09

Zer irizten dotsazu?

Udalak 2005erako aurrekontuak osatzen dihardu eta apirilean onartuko ditu. Bertan, datorren urtean herrian garatu beharreko egitasmo eta diru partida nagusiak zahaztuko ditu. Herritarrei herrian ze behar ikusten duten galdetu diegu.

Ze premiña ikusten dozu herrixan?



Iñaki Soraluze
44 urte
Rektifikadoria

Soraluzen gauza asko falta dira. Neretzat garrantzitsuenak umiendako gauzak dira; zine bat edo kulturako zoezer.. ze ez dao ezebe.



Clari Cifuentes
45 urte
Hostelaria

Umiendako gauzak, ze ez dao ezebe. Hamen tabernak bakarrik dare umiak egoteko eta hori ez da plana. Nahikua aparkamentu be ez dao. Horixe botatzen dot faltan.



Fermina Arriola
60 urte
Etxeko laguntzailia

Gaztetxuendako gauzak, ze ez dao ezebe. Ez dao zinerik be. Nere ustez obrak egitia ondo dao baina herri baten beste gauza batzuk be egin egin bihar dira .



Juan Jose Nieves
67 urte
Jubilatua

Ni ez dot ezer ikusten faltan, ze ikusten dot diru asko diharduela gastatzen obretan, Ezozin, Sacian etabar. Ni pozik nago egiten diharduenakin.



Eneko Berraondo
17 urte
Ikaslia

Gaztiendako lokalak edo gaztiendako toki gehixao, zinia, futbol zelai bat dezentia eta udaletxetik gauza gehixao antolatzia.



Nora Arizaga
16 urte
Ikaslia

Gaztiendako zeozer bihar litzake, ze ez dao ezebe. Aparkamentuak eta udaletxiak gazteendako zeozer antolatzia ona litzake..

GILA TABERNA
Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik
Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

 **PASCUAL CHURRUGA, s.a.**
Hotzian eta beruan jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxe 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Soraluzetar presoak gose greban estatus politikoa aldarrikatzeko

Euskal Preso Politikoen Kolektibok (EPPK) azken hilabeteetan hasitako aldarrikapen ekimenekin bat eginenez, Espainiako espetxeetan preso dauden 4 preso soraluzetarrek (Lurdes, Pedro Jose, Anjelua eta Reginak) 11 eguneko gose greba egin dute martxoaren 15etik 26ra bitartean. Gose grebaren helburua; "Euskal Presoen bakartze politikorekin amaitu eta estatus politikoa aitortza lortzea da".

Helburu berdinarekin, martxoaren 19an Frantziako Fleury espetxera antolatutako martxan (21 autobus) joan ziren hainbat soraluzetar. Jendarmeak aurrez aurre izan zituzten.



4 plazentziatar Legebiltzarrerako zerrendetan

Hil honen 17an Eusko Legebiltzarrerako egingo diren hauteskundeetarako aurkeztutako hautagai-zerrendan 4 plazentziatarren izenak daude: Mikel Santiago, 13. Eusko Alkartasunaren zerrendan; Soledad Del Bosque, 19. Alderdi Sozialistaren zerrendan; Iñigo Alberdi, 16. Eusko Alderdi Jeltzalearen zerrendan eta Ezozki Leturiondo, 5. Alderdi sozialistaren zerrendan (azken hau Arabatik).

Petril berria Estaziotik Olearako bidean



Estaziotik Oleara doan bide berriaren ondoan (argazkian) petrila jasotzen ari dira, Santa Ana kaleko bizilagunek horrela eskatuta. Azkenengo uholdeetan lur jausiak izan ziren Santa Ana atzeko aldera eta Udalak badaezpada segurtasun neurriak hartu ditu. Lanak, dorre elektriko kendu berriaren ondoan burutzen dihardute.

Eskeintza berriak Kzgunean

Herriko Kzgunek informatikan trebatu nahi duten guztientzat eskeintza berriak egin ditu apirilera. Jarraian datoz zerrendaturik kurtsu desberdinak.:

- Mikologia Iberdrola (Euskeraz)
- Flashget (E)
- Euskara ziberespazioan (E)
- Itsasoen murgil zaitez (E)

Bestalde Kzprestakuntzako kurtsu hauek ere antolatu dira. Klase hauek lanean diharduten pertsonen zuzendutako daude bereziki:

- Zure negozioaren ekipu informati-

- koak osorik artuta babestu: Panda
- Platinum Internet Security 2005 (C) - KZMikroenpresak:
- Prestakuntza
- Banka Elektronikoa: Kontu mugimenduetak, intsuldaketak eta transferentziak Interneten (C)
- KZMikroenpresak:
- Prestakuntza
- Banka elektronikoa: ordainagiriaren helbideratzea, ordainketak eta kobrantzak Interneten. (C) - KZMikroenpresak: Prestakuntza
- On-line egin BEZaren aitortpena (C)
- KZMikroenpresak: Prestakuntza.

Instalazioak
Berrikuntzak



KIRU
muntaiak

Kiru Muntaiak S.L.

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Amillaga, 5 20750 Bergara
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 615 70 27 65



ETXEHUN, S.A.L.

Barra kargadore automatikoak
eta makina bereziak

Mendiola Industrialdea 14-5
Tfnoa 943 75 18 91
Faxa 943 75 24 58
E - maila: etxehun@telex.es
etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE
Gipuzkoa



**Hnos. BENITO
ANAIK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoak konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



EDURTZA Kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua

**Eguneroko
menua eta
pintxoak**

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze



12 etxebizitza berri Santa Ana kalean



SENDIAN programa ezartzeko azterketa egingo du Udalak

Udaleko Ongizate Saileko arduradunek Sendian programaren aurkezpena egin zuten martxoan. Diputazioak kudeatzen duen programa hau, menpekotasunen bat -fisikoa, psikikoa zein sensoriala- duten 60 urtetik gorako pertsonen senideei zuzendua dago. Ongizate saileko arduradunek esandakoaren arabera, orain dela 4-5 urte egin zen herrian saiakera bat Sendian programa martxan jartzeko baina bertan behera geratu zen. Oraingo honetan ikerketa bat egingo dute, herri mailan zenbat familia interesatu dagoen ezagutu eta proiektuaren bideragarritasuna aztertzeko. Edozelan ere, programa diputazioaren kompetentzia da

eta Udalak bitartekaritza lana egingo luke.

Laguntza eskaerak egiteko Udalaren Ongizate Sailera joan beharra dago. Laguntza jaso ahal izateko berriz, ezinbestekoa izango da eskaera egiten duena, ezintasuna duenaren etxe berean bizi izatea. Laguntzak desberdinak izango dira: informatiboak, teknikoak, ekonomikoak edo psikologikoak, gaxoei eta senideei zuzendutako hitzaldien bitartez. Programak eskeintzen duen beste aukera bat atsedenaldiarena da. Horrela, ezindua eguneko zentroetan zein egoitza baten sartu ahal izango da, egun batzutan senideei lana arinduz.

Hasiak dira dagoeneko Santa Ana kaleko 13 eta 15 zenbakidun etxeak botatzen. Barrukaldeak joan zen astean hustu zituzten; etxeak botako dituzte ondoren, bertan 12 etxebizitza berri eraikitzeko. 13 eta 15 zenbakidun etxeekin batera, Labe-gain elkar-etea ere botako dute. Ibai-ondo (Alcazar zaharra) eta Labe-gain dira herriko soziedaderik zaharrenak, 1950 eta 1951. urtean sortuak. Sasoi hartan, ogia egiten zen Galipotean kokaturik zegoen labean. eta Soziedadea Labe gainean egin zuten.

Ikastetxe zaharra hutsik geratu da



Oporraldiaren bueltan, frontoiko eskolan zeuden azkenengo haurrak ikastetxe berrira joan dira; eraikina hutsik geratu da beraz. Udaletik adierazi digute momentuz musika eskola-koendako egokituko dituztela gela batzuk eta institutokoei ere gelak utziko zaizkiela, bertan tailerrak egiteko.



Ikurrinak Aberri Egunean

Ohiturari jarraituz, Puzko igandean ospatu zen aberri eguna. Alderdi politiko abertzaleek eta Udalbiltzak, bakoitzak bere aldetik, herri desberdinetan ospatu zituzten ekitaldirik nagusienak. Herri mailan ez zen aparte-ko ospakizunik izan. Hala ere, bai Udaletxean eta bai herriko zenbait etxeetako balkoietan ere, ikurriñak erakutsi zituzten.

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

HORTZ
KLINIKA

MEDIKU ESTOMATOLOGOEA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

GAZTELUPE
taberna

tel: 943 75 20 81



Kristauak gurutze-bidean

Asko ta asko kanpora joan dira Aste Santuko jai egunetan, bai kostaldera edo bai mendialdera. Beste batzuk herrian geratu dira, lasai, abuztuko opor txikiak izango balira moduan; gutxi batzuk, berriz, eliz-ospakizunetan hartu dute parte. Azken hauek, Jesusen pasioa, heriotza eta berpiztea ospatzen geratu dira herrian. Beraiei jarri diegu arreta oraingo honetan, izan ere, urte gutxian gauzak asko aldatu dira eliza eta eliz ospakizunetan: gaur egun herritarren % 8 a (130-140 pertsona) joaten da elizara zapatu-domeketan (Aste Santuan ere antzera).

Sasoi bateko ospakizunetan ia herri guztiak hartzen zuten parte. Hain apasionatuak ote ziren lehen? Hain pasotak al gara orain? Garai bateko eta gaur egungo bi fededunen eritzia eza-gutu nahi izan dugu erreportaian



50. hamarkadako prozesioa elizarako bidean.

--- EMILITA ALTUNA ---

“Sozialista batzuk ez, beste danak prozesiñuan zeren”

Gaur baino fede gehixago zeguan lehen?

Lehen fedia baino gehixago bildurra zeguan. Jaungoikua zan aitta eta jueza, gu kastigau leikiana. Oin jaungoikuak jarraitzen dau aitta izaten baina oin zela errespeturik ez jakon eukitzen aittari, Jaungoikuari bez. Lehen pobrezia gehixago zeguan eta diferentia zan. Jaungoikuan premiñarik ez dakagu gaur egun.

Ze ospakizun berezi egitten zan lehen Aste Santuan?

Via Crucisa erramu igandian egiten zan, Ezozira; zapatu goizian “Laudes” ospatzen zan, monjak eta frailliak lehenengo orduan errezatzen dabon salmo batzuekin. Astelehen, martitzen eta eguaztenetan “Tinieblas”: 7 kandela zeren kandelabro baten. Errezo bakoitzakin kandela bat emendatzen zan. Seigarren kandelan, umiok trakekin zaratia egin bihar izaten genduan. Trakarik ez zekenak sillekin egitten zittuen zaratak eta Don Gregorio hasarretu egitten zan. Piztuta gelditzen zan kandelua, amabirginiari eruaten jakon

Eta prozesiñuak zela izaten ziran?

Eguenian San Juan, Nazarena eta Amabirginia etaratzen ziran Errekalderruntz. Barixakuan Dolorosia eta San Juan terziopeloz jantzita, dotore, Iturburutik Plaza Zaharrera eruaten zan.



“Jaungoikuan premiñarik barik bizi gara gaur egun”

Domekan 2 prozesiñok tope egitten zeben: Jesus piztutakua parrokixatik etaratzen zan eta Santa Ana kaleko kontubentuko elizatik amabirginia, dana zuriz jantzita. Bi prozesiñuak Udaletxe parian elkarri erreberentzia bat egitten zotsen. Behin amabirginia jausi jakuen batzueri.

Herri guztiak hartzen zeban parte?

Ixa danak. Sozialista batzuk ez, beste danak. Pentsaizu: gure tio sozialistia zan eta bera ez, baina seme-alabak kastigau egitten zittuan ez baldin baziran mezetara juaten. Aurrian, apaiza eta udaletxeko ordezkariak eta atzian musika bandia. Prozesiñua zaintzen Guardia zibilla. Andrakumiak gizonen atzian juaten ginan beti. Elizan be, gizonak ezkerrian (atzekaldian normalian) eta andrak eskuman.

Zer ikasi bihar genduke Jesu-sengandik?

Beti biharra dakan jentiakin arduratu bihar garala: pobriekin, gaixuekin... Zenbat eta gauza gehixago euki orduan eta felizidade gitxiago daukagu.

Zu misionera be ibili zinan...

Monja izan nitzan 5 urtian eta Congon urtebete egin neban leproserixa baten. Oso jente noblia da hangua, baina hechiceruak enredatzen dittue. Belgikak kolonia laga zebanian euren artian hasi ziran burrukan. Ni handik etorri eta segiduan nere 4 lagunak hil zittuen.

-Nundik dakarzu fedia?

Lehenengo etxetik. Gero, abadiak eta maistra batek erakutsi zosten. Maistria bizi da oindio; 18 urtekin etorri zan Plazentziara, señorita Isabel Roteta. Oin Bartzelonan bizi da, 90 bat urtekin.



Ezkerreko eta erdiko irudian eliztarrak Gurutz Bidean. Eskumako argazkian an, Pazko igandeko eliz-ospakizunetik ateratzen.

--- LUIS GOMEZ (Abadea) ----

“Izan ona, bai, baina kriterioarekin”

Ze aldaketa egon da lehenengo Aste Santuetatik oinguetara?

Lehen eskertu egiten zan lehenengo eta ospatu gero. Oin gehiengoak ospatu bakarrik egiten du.

Alde batetik normala da jenteak egun batzuk jai euki eta atsedena behar izatea. Ospatu behar da bizi duguna eta fedea ez dugu bizi. Eskerrak emote hori joan da, astesantuen karkaxa geratu da bakarrik, barrukorik gabe. Doemeketan, herritarren %8a etortzen da mezetara: 130-140 pertsona. Aste-santuetan kopuru hori mantendu da jentia kanpora joan arren.

-Eta ospakizun aldetik?

Lehen kanporantz begira egiten zan ospakizuna. Prozesiñuan urtetzen zan, triunfalki moduan.

Oin barrurantz begira egiten dugu, eguneroko bizitzan onak izaten, umiltasunez. Aste santuetan, elkarteko ospakizuna egiten dogu, irakurle eta monitorea desberdinen laguntzaz. Lehenengo Jaungoikuari eskerrak ematen dizkiogu eta gero Jesusen berpiztea ospatzen dugu, mahai baten bueltan txokolate janaz. Hau zapatu gaubelan izaten da.

Zer ikasi behar genduke Jesusen heriotza eta berpiztetik?

Umilla izaten. Gaur egun umilla izatia tontua izatia da. Batzuk esaten dute: izan zaitetz onegia eta zapaldu egingo zaituzte. Izan ona, bai, baina kriterio batekin. Beti ez da bai esan behar. Ez esaten jakin behar da. Bestalde, kohe-



“Zer egin behar genduke bizitzan: urgentia edo inportantia? Inportantia, noski”

rente izaten erakutsi zigun; bakoitzak bere gurutzera eraman behar du; sufrituz, aurrera jarraitu. Hor ikusten da bere koherentzia. Tortura bat izan zen bere heriotza; erdi eserita hil zen, birrikak odolez beteta.

Izan leike kristaua elizara juateke?

Bai. Guk kristau baloriak dakaguz disko gogorrian. Badakigu zer dan ona izatia eta txarra izatia. Eskema hori normalian danok dakagu, baina praktika erlijiosorik ez da egiten. Batzuk urtean zehar joaten dira, egun batzutan, bes-tetan Arantzazura igual...baina beste erritmo bat da. Zer egin behar genduke bizitzan? Urgentia edo inportantia? Inportantia, noski. Eta guk beti urgentia egiten dugu. Hori da problema.

Fedea bizitzeko era aldatu da?

Dikotomia bat dago. Herritarren %8 a etortzen da mezetara eta bataio-jau-nartze etabarretara % 80 a. Ezkontzak erdiak baino gehiago elizatik izaten dira. Gurasoek koherentziaz jokatu behar dute, ez inkoherentziarik sartu seme-alabei. Errealitatea aldatu da: biztanleria handitu da eta katekistak gutxitu. Gurasoek ez dute konprometitu nahi. Azkenean, etxean ikasi beharko dute, gurasoen laguntasunaz.

Nola alda daiteke fedea bizitzeko era hau?

Eskema honek ez du ematen. Inork ez du mahai gainean ezer jartzen, danak hartu egiten dabe mahaittik. Pasatu gara helburu espirituala izatetik helburu materiala izatera; nekazarien bizimodutik gaur egunekora. XX. Mendea izan da eskubideen mendea eta XXI. Mendea izango da obligazioen mendea.

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g ff: 943 752 150
138 Postakutxa Faxa: 943752118

SORALUZE


Juan Mari
Arraindegia

**Eguneroko
arraina
eta konjelatuak**

Merkatu Plaza
20590 Sorluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69



Korrika Argazkitan



Gaztixoenek asko gozatu zuten Kukubiltxorekin



Abesbatzakoek tabernan amaitu zuten kantaldia



Korrikak sorte ekarri zion Sorari. Sorak 2- Pedrusko 0



Pelotari beteranoek sasoiak daudela erakutsi zuten



Ikastetxeko haur eta irakasleek kaleak hartu zituzten



Korrika jendetsu a izan zen

14. Korrika ni ere bai! æk



aras S.A.L.

DIN arauak jarraituz eta
zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21
50 Posta Kutxatila

Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03
Faxa 943 75 22 95
20590 Soraluze



kutxa

gizarte ekintza



Enrique Churruca “Erlei”

“Astelehenero afaltzen genduan sosiedadian, baina 22:00etarako etxian beti!”

Alcazarrekin batera, Labe-gain soziedadea da herriko elkarte gastronomikorik zaharrena (1950. eta 1951. Urteetakoak dira). Hasierako urte haietan herriko industrialak, botikarioa eta medikua biltzen ziren Labe-gainen. Datzen egunotan botako dute elkartea, Santa Ana kaleko 13 ta 15 zenbakietan etxe berriak eraiki behar dituzte eta. Enrique Churrucarekin egon gara, elkartearen historia gertuagotik ezagutzeko asmoz.

Noiz egin zinan Labe-gaingo bazkide?

Hasiera hasieratik naiz Labe-gaingo sozio. 1951. urtian egin genduan soziedadia, 30 bat lagunengartian.

-Noiz elkartzen zintaten?

Gure kuadrilliak astelehenero egiten zeban afarixa. Astelehenetan beti, eta asteburutan be askotan. Astian batek eruaten zeban jatekoa. Batzutan, astirik barik edo gogorik barik genbizenian

“Nik txuletak erretzeko arduria eukitzen neban”

kanpotik ekartzen genduan afarixa: Mendatanetik, Txergorinetik, Meltxorrenetik.... Hori bai, astelehenero-astelehenero 22:00 etarako etxian beti.

-Afalostietan zer egiten zenuen?

Danetik pixkat. Gure kuadrillak industrialak ginan gehixenok eta tailarreko ipoinak erabiltzen genduzen. Bestela, bakoitzak berria; pelotia, boxeua... kartetan be egiten genduan, julepian, eta kantuan be bai; ez Allegrokuen moduan -harek gitarrekin lagunduta kantatzen zeben- baina guk be kantatzen genduan. Izaga medikua eta Zabaleta botikarixua be han ibiltzen ziran. Ez ziran kozinero onak baina trankilidadia demasa emoten zoskuen!

-Andrak Labegainen sartzerik bazeken?

Andrendako ez zeguan prohibiduta, baina eruan ez guk, normalian. Karnabaletan-eta etortzen ziran!

Sukaldian ibiltzen nun ikasi zenduan?

Soziedadian etxian baino gehixago Zure espezialdidadia zein zan? Nik txuletak erretzeko arduraduna nintzan. Afari edo bazkari bereziren bat zeguanian beti jaten genduzen txuletak

Herriko ze beste elkartetara juaten zintaten?

Arrio-gainen ibiltzen ginan asko. Ni Alcazarreko bazkide be banitzan, aittan partetik, baina juan gutxi. Gure anaia Allegrokua izan da beti.

Zer da zuri gehixen gustatzen jatzuna jateko?

Legatz-burua eta txuletia.

Zer sentidu zenduan Labegaina bota bihar zebela entzutian?

Bazetorrela... ta kitto. Penia da, baina...oin ez dakigu, igual barrixa egingo dabe ta...

FER.

**S.A.
Industriak**

Eskulanetarako tresnak

Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

Etxabe Harategia

Euskal
txahalkia-Bildotsa



**Merkatu Plaza
6-7 Postuak
Telef. 943752375**

“Toñin” en itzulera

“Galdu dezagun burua tente dugula”

Soraluze Futbol Taldeak entrena-tzaile berria ekarri du: Antonio Galea-no “Toñin” elgoibartarra. Aldaketare-kin, zuzendaritza batzordea taldea sailkapeneko azken postuetatik atera-tzeko azken saiakera egin du, eta badi-rudi hasi direla mutilak burua altxa-zen. Azkenengo jardunaldian, Toñi-nen debutean, taldeak arazo haundirik gabe irabazi zion Elgoibarko Pedrusko taldeari, iaz Toñinek berak entrenatu zuen taldeari.

Zenbagarren urtea duzu So-ran?

6 urte eman nituen jokatzeko eta duela bi urte entrenadore izan nintzen.

Zer aurkitu duzu Ezoziko fut-bol zelaiko aldageletan?

Fisikoki, pentsatzen nuena baino hobeto dago taldea. Moralez berriz, nahiko jota. Denboraldian zehar pare bat partidu jokatzeko ikusi nituen eta ilusio-rik gabe ari zirela iruditu zitzaidan.

Hasi al dira gauzak aldatzen?

Lehenengo partiduekin oso pozik gaude denok. Taldea animatuta ikusi nuen eta jokalarien jarrera oso ona izan zen. Hori da nik eskatzen diegana: gal-du behar badugu, galdu dezagun burua tente dugula, partidua bukatu arte go-gor lan eginez.

Zer aldaketa egin duzu taldea-ren ardura hartu duzuetatik?

Hamaikakoan jokalaria berriak sartu eta beste batzuk atera egin behar izan



Toñin Ezoziko futbol zelaian.

ditu. Bestalde, joko-sistema ere aldatu dut, nire ustez taldeak behar duena ezar-riz. Entrenamentuei dagokienez, orain 3 entrenamentu egiten ditugu astean 2 beharrenean.

-Zenbat partidu falta dira denboraldia bukatzeko?

Sei; lau etxean tokatzen zaizkigu eta bi kanpoan. Azken jardunaldiaren oste-an, azkenetik hasita laugarren gara sailkapenean eta azkenengo hirurak dira kategoria galtzen dutenak. Gogor lan egitea besterik ez zaigu geratzen.

EMAITZAK

Futbola

Azkenengo bi asteburuetan ez da partidurik jokatu, aste santuko oporrak direla eta.

Hurrengo jardunaldia apirilaren 10-11an izango da

Esku pilota

Aitor Atxotegi

Abadiñoko txapelketan, Elgoibarko Txurrukarekin batera 22-19 galdu zuen Altsasuko bikotearen aurka

Udaberriko txapelketan, Elgoibarko Ansolarekin 22-12 irabazi zuen Usurbilgo bikotearen aurka

Pala txapelketa,

Kiroldegiko pala txapelketa azken txanpan sartu da. Azken ligaxka jokatzeke, 4 bikote hauek sailkatu dira. Zigor Alberdi- Jokin Martinez

Unamuno-Ibabe

Calles I-Calles II

Eneko- Iban (Eibartarrak)

AGENDA

Futbola, 11ean

Zumaia-ko-Soraluze (Erreg.)

Urki - Soraluze (Juben.)

Soraluze-Zestoa (kadet.)

Mendi irteera,

Apirilaren 10ean

Sarastarrira mendira (996 m).

(Ataun-Lizarrusti)

IÑAKI IÑARRA

HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

Instalaciones Kalebarren S.L.



GAS INSTALAKUNTZAK
ETA PROIEKTUAK
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

Bolia taberna

Etxaburueta
Tel.: 943 75 11 04
20590 Soraluze



Oscar Oruesagasti

“Zerbeza instalaziñua eta dekoraziñua dira berezienak”

Egunotan irekiko du Oscar Oruesagasti sukaldari gazteak taberna berria: Ufala Irish Pub. Urteetan ez da herrian taberna berririk zabaldu, eta honek –berria eta gainera irlandarra izateak- kuriositatea piztu du herriarren artean. Elkarrizketan zehar bat baino gehiago harrapatu dugu Santa Ana kaletik kilik egiten. Zera aurrea dezakegu: dena egurrez egina dagoela, dotore, eta hormetan, Plazentziako argazki zahar ikusgarriak daude zintzilikatuta; 6 mahai eta 28 jarleku egongo dira guztira. Tabernaren aurrealdean, marra batez seinalatuta dago 1973 ko uholdeetan ufala noraino igo zen; hortik tabernaren izena.

Noiz zabalduko dozue tabernia?

Okerrik ez badago apirillan erdialdera
Zer da, irlandes pub sare bat?

Partikularra da. Ez da frankizia bat, frankizia bat ez litzake errentagarria izango, baina Guinness zerbeziakin badaka zerikusirik: zerbeza konpainiak eta Bilboko dekoradore batek alkarrekin lan egiten dabe holako irlandarrak jartzeko. Dekoratoriak tabernia dekoratzen dau eta zerbeza konpainiak zerbeza instalaziñua egiten dau.

Zer daka berezixa irlandar batek?

Dekoraziñuan aldaketa haundixa dago: egurrezkua da dana eta beste tabernetan baino argi gutxiago dago, lanpara asko baina argi gutxi. Zerbeza instalaziñua da berezixena. Taberna normal baten hartzen dan Guinness bat, esaterako, eta hemen etarako doguna ziero desberdinak dira.

Zenbat zerbeza desberdin etarako dozue?

Lau iturri dare, instalaziñuetatik datozenak: rubixua, baltza, tostaua eta gari-zerbezia. Aparte, kartan, beste 10 desberdin: gorrixa, alsaziarra, whisky lurrinduna...

Zer daka berezixa irlandar honek?

Plazentzian pentsauta dago, hamengo estilora: bertako argazki zaharrak, bertako girua, bertako banderillak...

Ze musika mota jarriko dozue?

Danetik pixkat, baina gehixen zelta tipikua.

Eguneko tabernia izango da? gabekua?

Goizian goiz zabalduko dogu gosarixak



Bertso Begiz

*Larala la la eta ieufala!
Santana kaletik dator Ufala!
Garagardua da ta ez ura,
beraz guazen ufal barrura!
Gero barruan,
ez gara itoko segituan,
bibolin jotzen eta kantuan.*

*Etxebarri
(Doinua: Juana bixentarena)*

Oscar Oruesagasti

emoteko. Egunian zihar danendako egongo da zabalik eta gabian be hemen egongo gara.

Errez lortu dozue baimena tabernia zabaltzeko?

Bai. Denboria juan da baina badakizu, burokrazia kontuak.

Zela ikusten dozu Plazentziako taberna girua?

Egunez oso ondo, baina gaez oso baju. Hori danian pasatzen da baina, ez plazentzian bakarrik.

Nundik nora etorri jatzuen ideia?

Beti gustau izan jataz neri irlandarrak. Eibarkora eta inguruetakora askotan juaten naiz eta hortik ekarri genduan ideia.

ARMENDIA JATETxea

Sukaldaritza tradizionala

Ezozl Auzoa, 11
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 1002

SALAZAR

Altzariak

Altzariak-Apaindurak

Sukaldeak - Elektratresnak

Errekalde, 7 -20590 Soraluze Telefonoa/Faxa: 943752388

Argazki zaharra




1960ko despedida Ezozin

1960. Urtian Begoña Elizgarayren despedida zala eta, Ezozin etarako argazkixa. Bertan ageri dira; Eubigis Berrueta, Juanita Gabilondo, Libe Garitagoitia, Karmentxu Arana, Maria (Lesarri goikoa), (bi kanpokoak). Vicenta Azkorbebeitia, M Asun Berrueta, M^a Jesus Imaz, M Tere Mujika, Karmen Orueta, Ester Larrañaga, Ester Oregi, M

Teresa Bandaormatxea, Elisa Labaien, Arantza Gabilondo, Ezoziz Zangitu, (bazarreko bostak azpeitikoak). Marisol Gallastegi, Mikaela Bandaormatxea, Poloni Arenaza, Begoña Elizgarai, M^a Ezozia Aizpiri, M^a Pilar, M^a Jesus Sudupe, Begoña Basauri.

Lehiaketa

Aurreko
alean...



erantzuna...:
bi lehio ilara bat kenduta.

...eta irabazlea: Marta Vendo

TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarreri 22 behean. telf: 943751789



Begoña Urdaitegia

Hestebete bereziak:


Iberikoak •
Pateak •


Hel.: Merkatu Plaza
Telf.: 943 75 3009



Ugaraxo

PLAZENTZIAKO KALIETAN KORRIKA!!





BAGOIAZZZZZZZZZZZZZZZZZZZZ!

DANA BATU DOGU!!

"HEMEN GABILTZA JO
TA KE GURE GELAK HUS-
TUTZEN. OPORRETATIK
BUELTATZEN GARENEAN
DENOK GOIKO ESKOLARA
JOANGO GARA!

ESKOLA BERRIRA!!

A ZE POZA!!!



**POZIK GOAZ POZIK!
ESKOLA BERRIAN
HOBETO EGONGO
GARELAKO...**

**AGUUUR
BENHUR !!!**





TXIKI-INKESTA

**Nundik nora ibili zara Aste Santuan? Zer egin dozu?
Eta zure lagunak?**

ANDONI ODRIOZOLA 11 URTE 6,B

Lezamara juan nitzan atletixan entrenamentua ikustera eta argazkixak etara nittuan jokalarixekin. Oin frontoian egoten naiz, raketiakin; modia da.



EDURNE PROL 7 URTE 2.

Plazentzian geratu naiz lagunekin patinetan et karreretara jolasten. Eskolarik barik oso ondo pasau dot. Etxekolan mordua jartzen doskue eta ez dot nahi hasterikan



MAITE GARMENDIA 8 URTE 3.A

Almeriara juan naiz lehengusuegana. Han basamortu batera juaten giñan, Cabo de Gata-ra, eta beisbolian jolasten genduan. Plazentzian patinetan, arkupietan



IBAI KORTABARRIA 9 URTE 4.B

Frontoian, raketiakin jolasian. Egun baten Ondarroara juan nitzan arrantzan egitttera, baina ezebe. Beste egun batzutan basarriara juan naiz, laguntzera.



MARKEL GUSTINO 8 URTE 3 A

Nere ama jaio zan herrixan: Velber de Los Montes, Zamoran. Mendira juaten nitzan lehengusuekin. Ixa untxi bat harrapau genduan eta 3 azeri ikusi bebai.



NORA LETURIONDO 8 URTE 3.A

Laredon aittakin eta amakin. Askotan juaten gara eta hango lagunekin ondo pasatzen dot. Hamen be primeran: patinekin arkupietan bueltak emoten.




"Euskaraz bizi!"



Martxoan, Korrika Batzordeak deituta Donostiako grafitilari batzuek Euskaraz bizitzeko gonbitea egiten duen murala margotu zuten frontoian!

Nik, nere lagunek, zuk eta zure lagunek Euskaraz bizitzeko aukera egin dezakegu! Elkarrekin gozatzeko!



DENOK KORRIKA!

DENOK EUSKAL HERRIA EUSKALDUNTZEN!



KORRIKAKO ABESTIA

NI ERE BAI

Gauzak esateko, hitzak beharrezkoak dira.
Elkar ulertzeko sortzen dira hizkuntzak,
loreak bezalakoak,
egunero zaintzen dira ura bota behar, hiltzen dira bestelan.


Euskara bihurtuko da loretsu bat
Gu, denok landatua,
Goazen ba korrika (bis)
Euskara mintzatuz gure artian belaunaldiz,
belaunaldi
Korrika, korrika ni, ere bai.

Goazen korrika, gure euskara zaintzera
Nagusiok ere badugu aukera.
Ez izan lotsati ez esan berandu dela
Guztion laguntza,
eskatzen da korrikan.
Euskara bihurtuko da loretsu bat...

HAU DA GURE HELBURUA

EUSKERA INDARTZEA.

EUSKARA GUZTIONA DA ETA GUZTIONA IZAN BEHAR DU. HORI UKATUKO DUENIK EZ DA GURE ARTEAN. GEUREA, NORBERARENA IZATEAK KONPROMISO ZEHATZA ESKATZEN DU, GUTARIKO BAKOITZAK BERE DENA ZAINTZEN HARTU BEHAR DUEN KONPROMISO PERTSONALA.



50 IBILBIDE FAMILIA ETA LAGUN ARTEAN

Euskal Herria deskubritzeko 50 txango

Jentilak, Matalas, Lizardi, Txondorrek, Elurzuloak, Kontrabandisten bideak, Pozalagua, Baltzola, Aixerrota, Gaztelugatxe, Otsoa... Tokian tokiko ohitura, kultura, istorio eta altxorrek ezagutzeko 50 bide.

Aurrez argitaratu gabeko 50 itzuli zirkular




Bizpahiru orduko ibilaldiak, edonork egiteko moduko 50 mendi buelta

Apirilaren 24tik aurrera

egunero ibilbide bat DOAN BERRIArekin



Laguntzaileak:



Euskaldunok behar dugun

berria

Bai Euskarari Ziurtagiria *ezagutzen al duzu?*



Bai Euskarari Ziurtagiriaren bitartez, 800 enpresa, ikastetxe, denda, jatetxe... eta era guztietako entitate baino gehiagok euskararekin duten konpromisoa adierazten dute.

902 430026
www.baieuskarari.org

***Aintzat hartu euskararekin
konprometitzen dena!***

laguntzailea:

